

CONCEPTO Y EXPLICACION DEL INGRESO		TOTAL CONCEPTO	TOTAL ARTICULO, CAPITULO
ARTICULO.-	45.DEL SECTOR PUBLICO VASCO		1.021.161.061
450	DE LA ADMINISTRACION GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTONOMA	1.021.161.061	
001	DE LA ADMINISTRACION GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTONOMA		
CAPITULO.-	7. TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		185.736.531
ARTICULO.-	75 DEL SECTOR PUBLICO VASCO		185.736.531
750	DE LA ADMINISTRACION GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTONOMA	185.736.531	
001	DE LA ADMINISTRACION GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTONOMA		
TOTAL SERVICIO	01 ACADEMIA DE POLICIA		1.216.897.592
TOTAL PROGRAMA	45100 ACADEMIA DE POLICIA		1.216.897.592

## HERRIZAINGO SAILA

### 2574

218/1993 DEKRETUA, uztailearen 27koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren egitura organikoa ezartzen duena.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailearen 17ko 4/1992 Legean eratzten da Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia Herrizaingo Sailari atxikita dagoen erakunde autonomo gisa, eta bertan horren eginkizunak finkatu - Euskal Herriko Poliziaren aukeraketa eta gaikuntzaren ingurukoak direnak, segurtasun pribatuko langileen heziketa egokirako burutu beharrekoen kaltetan gabeta bidebatez, erakunde autonomoaren jaurtze eta zuzendaritzako ihardute-sailen oinarritzako eskema ezartzen du. Beste ingurune batean izendatu zaizkion eginkizunak era egokiagoan garatzeko administrazio mailako antolakuntzarako formula da.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia era eraginkorrean ezar dadin maila ezberdineko xedapen eta erabakiak hartu beharra dago, batzuk Legearen aldibaterako xedapenetan esanbidez jasota datozenak. Horien artean erakunde autonomo berriaren egitura organiko eta funtzionala araupetzekoa, hori Legean oharmandakoa betetzera etorriko dela, eta eraginkortasun egokirako eta garai berriek eskatzen duten bitartekoan ekonomiarako ihardute-sail eta eginkizunen sistema taiutuz.

Hori da, hain zuzen, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen azken xedapenetatik bigarrenean jasotako eskumenean oinarrituta ematen den Dekretu honen helburua.

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

### 2574

DECRETO 218/1993, de 27 de julio, por el que se establece la estructura orgánica de la Academia de Policía del País Vasco.

La Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, crea la Academia de Policía del País Vasco como organismo autónomo adscrito al Departamento de Interior, determina sus funciones, -centradas en torno a la selección y formación de la Policía del País Vasco, sin perjuicio, de los cometidos que deba desarrollar para la adecuada formación del personal de seguridad privada- y establece al tiempo el esquema básico de los órganos de gobierno y dirección del ente autónomo. Se trata de establecer, de este modo, una fórmula de organización administrativa más adecuada al desarrollo de la tarea atribuida en otro contexto.

La efectiva implantación de la Academia de Policía del País Vasco requiere la adopción de disposiciones y resoluciones de diversa índole, algunas de las cuales vienen expresamente previstas en las disposiciones transitorias de la Ley. Cuenta, entre ellas, la regulación de la estructura orgánica y funcional del nuevo ente autónomo, llamada a completar en este orden las previsiones de la Ley, diseñando un sistema de órganos y cometidos adecuado a su correcta operatividad y a la economía de medios que exigen los tiempos.

Esa es, justamente, la finalidad del presente decreto, que se dicta al amparo de la habilitación contenida en la disposición final segunda de la Ley de Policía del País Vasco.

Ondorioz, Herrizaingo Sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko uztailearen 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

## XEDATU DUT:

*1. atala.*– Xedea.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailearen 17ko 4/1992 Legeak administrazio mailako erakunde autonomo gisa eratutako Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren egitura organikoa finkatzea da Dekretu honen xedea.

*2. atala.*– Ihardute-sailak.

1.– Honako hauek dira Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko ihardute-sailak:

- a) Kontseilu Araupetzaila.
- b) Zuzendaria.
  - Idazkaritza Nagusia.
  - Gaikuntza Alorra.
  - Hautapen Alorra.
  - Administrazio eta Gai Orokorretarako Alorra.

2.– Aurreko idazatian jasotako Alorrak, dituzten eginkizunetarako beharrezko izan daitezten sail eta atletan antolatu ahal izango dira.

*3. atala.*– Kontseilu Araupetzaila.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko jaurtze-organogorena den Kontseilu Araupetzaila, 4/1992 Legearen 8. atalean jasotako osaketa eta eginkizunak izango ditu.

*4. atala.*– Zuzendaria.

1.– Ikastegiko Zuzendaria Jaurlaritzaren dekretuz izendatuko da eta kenduko da kargutik, Herrizaingo Sailburuaren proposamenez, eta Eusko Jaurlaritzako Zuzendari maila izango du.

2.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Zuzendariak dauka Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko legezko ordezkotza, eta berari dagokio, oro har, Ikastegiko zerbitzu eta ekintza zuzentzea, suztatzea, koordinatzea eta ikuskatzea. Zuzendariari dagozkio, bereziki, honako eginkizun eta eskuduntza hauek:

- a) 4/1992 Legearen 7.3 atalak eskatzen duen koordinazioa eraginkorra izan dadin zaintzea.
- b) Aurrekontuen aurregitasmoaren proposamena eta horren urteko txostena, Ikastegiko urteko ekintzen plana eta hautaketa eta heziketarako plan orokorrak eta Ikastegiak bere eginkizunen alorrean beste erakunde publiko nahiz pribatuekin sina ditzakeen hitzarmenak.
- c) Kontseilu Araupetzailaren erabakiak era eraginkorrean bete daitezten zaintzea.
- d) Ertzaintzako eskala eta kategorietara sartzeko aukeraketa-bideetarako oinarriak onartzea, horien deia egitea eta epaimahaia izendatzea.
- e) Ondare eta kontratazio arloan legeek erakunde autonomoei izenda diezaizkien eskuduntzez baliatzea.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión 27 de julio de 1993,

## DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto.

Es objeto del presente Decreto la determinación de la estructura orgánica de la Academia de Policía del País Vasco, creada como organismo autónomo de carácter administrativo por la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

*Artículo 2.*– Los órganos.

1.– Son órganos de la Academia de Policía del País Vasco:

- a) El Consejo Rector.
- b) El Director:
  - La Secretaría General
  - La División de Formación
  - La División de Selección
  - La División de Administración y Asuntos Generales

2.– Las divisiones contempladas en el párrafo anterior podrán organizarse en las áreas y secciones que resulten necesarias para el cumplimiento de sus funciones.

*Artículo 3.*– El Consejo Rector.

El Consejo Rector, máximo órgano de gobierno de la Academia de Policía del País Vasco, tendrá la composición y funciones señaladas en el artículo 8 de la Ley 4/1992.

*Artículo 4.*– El Director.

1.– El Director de la Academia será nombrado y cesado por decreto del Gobierno, a propuesta del Consejero de Interior y ostentará el rango de Director del Gobierno Vasco.

2.– El Director de la Academia de Policía del País Vasco ostenta la representación legal de la Academia de Policía del País Vasco y, con carácter general, dirige, impulsa, coordina e inspecciona los servicios y actividades de la Academia. Corresponden al Director, en particular, las siguientes funciones y competencias:

- a) Velar por la efectividad de la coordinación que exige el art. 7.3 de la Ley 4/1992.
- b) Elaborar y elevar al Consejo Rector la propuesta de anteproyecto de presupuestos y su memoria anual, el plan anual de actividades de la Academia y los planes generales de selección y formación, así como los convenios que la Academia pueda suscribir con otras entidades públicas o privadas en el ámbito de sus funciones.
- c) Velar por la efectiva ejecución de los acuerdos del Consejo Rector.
- d) Aprobar las bases de los procesos selectivos para el ingreso en las escalas y categorías de la Ertzaintza, convocarlos y designar a los tribunales calificadoros.
- e) Ejercer las competencias que sobre patrimonio y contratación atribuye el ordenamiento jurídico a los organismos autónomos.

f) Ikastegira atxikitako langileei dagokienez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10.3 atalean aurrikusitakoaren arabera, erakunde autonomoari dagozkion eskuduntzez baliatzea, Dekretu honen 8. atalean Administrazio eta Gai Orokorretarako Alorrari izendatutakoak izan ezik.

g) Erakunde autonomoari izendatutako helburuak betetzeko ahalmenetatik, beste ihardute-sailei izendatzen ez zaizkien guztiez baliatzea.

3.- Ikastegiko Zuzendariaren menpe daude:

- Idazkaritza Nagusia.
- Gaikuntza Alorra.
- Hautapen Alorra.
- Administrazio eta Gai Orokorretarako Alorra.

5. atala.- Idazkaritza Nagusia.

Idazkaritza Nagusiari dagozkio:

a) Zuzendariari bere eginkizunetan teknikazko laguntza ematea.

b) Zuzendariaren ordezkari legez dagozkion eginkizunak burutzea, hala badagokio, eta haren ordezkotza bete zuzendaritza hutsik badago edo zuzendaria kanpogan edo gaixorik dagoenean.

c) Administrazio eskudunaren aldetik Ikastegiaren ardurapeko irakaskuntza zentruetan ematen diren ikasketen konbalidazioa lortzeko eman beharreko urratsak ematea, Hezkuntzako Administrazioa, unibertsitatekoa, botere judiziala eta irakaskuntzarako interesgarri izan daitezen beste erakunde, zentru edo tegien arteko erakunde mailako lankidetzak bultzatuz.

d) Ikastegiko artxibategia kudeatu eta zaintzea.

e) Ikasketa egiaztagiriak izapidetu eta ematea.

f) Ikastegiko liburutegia kudeatzea.

6. atala.- Gaikuntza Alorra.

Gaikuntza Alorrari dagokio:

a) Euskal Herriko Polizia osatzen duten Kidegoetako funtzionarien eskala eta kategorietara sartu aurreko heziketa ikastaroak programatzea, antolatzea eta burutzea.

b) Euskal Herriko Polizia osatzen duten Kidegoetako funtzionarien heziketa eta trebakuntzarako beste ikastaro batzuk programatzea, antolatzea eta burutzea.

c) Euskal Herriko Poliziako funtzionari guztientzat izaera orokorra eta aldizkakoa izango duten gaitasun profesional eta trebatasunen zainketa eta hobekuntzarako heziketa alorreko ekintzen egitarauak prestatzea eta udalbatzen menpeko polizia kidegoetako funtzionariei zuzendutakoak koordinatzea eta udaleei horiei plan horien egiterapenean laguntzea.

d) Jatorrizkoa ez den beste polizia kidegoetan lanpostu bat betetzeko beharrezko gaikuntzarako ikastaro osagarriak antolatu eta burutzea, 4/1992 Legearen 73.3

f) Ejercer, respecto del personal adscrito a la Academia, las competencias que corresponden al organismo autónomo conforme con lo previsto en el artículo 10.3 de la Ley 6/1989, de 6 de julio de la Función Pública Vasca, con excepción de las atribuidas a la División de Administración y Asuntos Generales en el art. 8 del presente Decreto.

g) El ejercicio de todas aquellas facultades, para el cumplimiento de los fines encomendados al organismo autónomo, que no se encuentren atribuidas a otros órganos.

3.- Dependien del Director de la Academia:

- La Secretaría General
- La División de Formación
- La División de Selección
- La División de Administración y Asuntos Generales

Artículo 5.- La Secretaria General.

Corresponde a la Secretaría General:

a) Prestar asistencia técnica al Director en el ejercicio de sus competencias.

b) Ejercer las competencias que, en su caso, le delegue el Director y sustituirle temporalmente en los casos de vacante, ausencia o enfermedad.

c) Realizar cuantas gestiones resulten necesarias para procurar la convalidación académica, por la administración competente, de los estudios que se cursen en los centros de enseñanza dependientes de la Academia, promoviendo la colaboración institucional de la administración educativa, universidad, poder judicial y otras instituciones, centros o establecimientos que específicamente interesen a los fines docentes.

d) Gestionar y custodiar el archivo académico.

e) Tramitar y expedir los certificados académicos.

f) Gestionar la biblioteca de la Academia.

Artículo 6.- La División de Formación.

Corresponde a la División de Formación:

a) Programar, organizar y desarrollar los cursos de formación previos al ingreso en las escalas y categorías de los cuerpos que integran la Policía del País Vasco.

b) Programar, organizar y desarrollar otros cursos destinados a la formación y perfeccionamiento de los funcionarios de los cuerpos de la Policía del País Vasco. A tales efectos, evaluará periódicamente las necesidades formativas de dichos cuerpos.

c) Elaborar las programaciones de las actividades de carácter formativo tendentes al mantenimiento y mejora de las aptitudes y capacidad profesional que tendrán carácter general y periódico para todos los funcionarios de la Policía del País Vasco, coordinar las dirigidas a los funcionarios de los cuerpos de policía dependientes de los municipios y prestar asistencia a los mismos en su ejecución.

d) Organizar y desarrollar los cursos complementarios de capacitación que resulten necesarios para ocupar puestos de trabajo en otros cuerpos de policía distintos

atalean oharmandakoa garatuz arauz ezar dadinaren arabera.

e) Ertzaintzako funtzionarien hizkuntz gaitasun egoia lortzeko ikastaro eta egitarauak taitu, antolatu eta behar izanez gero, garatzea.

f) Autonomi Elkarteetan herritarrak babestu eta laguntzeko zereginak dituzten erakunde publiko nahiz pribatuekin lankidetzan aritzea, Ikastegiko helburuak lortzeko egokiak izan daitezkeen gaikuntza edo zabal-kunde mailako ekintzak suzatu eta burutuz.

g) Euskal Heriko Poliziako funtzionarietzat, hezitze eta informazioa emateko izango diren aldi-aldiko argitalpenak gertatzea eta haien gaikuntza profesionala lortzeko beste ekintza lagungarri batzu antolatzea.

#### 7. atala.- Hautapen Alorra.

Hautapen Alorraro dagozkio:

a) Ertzaintzako eskala eta kategorietarako sartzeko aukeraketa-bidearen oinarriak ezarri eta Zuzendariari proposatzea.

b) Ertzaintzako eskala eta kategorietarako sartzeko aukeraketa-bidea burutu ahal izateko bete beharreko eginkizun guztiak burutzea.

c) Toki-Administrazioaren menpeko Polizia Kidegoetako eskala eta kategoria desberdinetan sartzeko oinarriko arauak taitutzea eta, bereziki, guztiek nahitahiezin beharrekoak gerta litezkeen aukeraketa-saioetako programak, edukia eta egitura prestatzea.

d) Euskal Herriko Polizia osatzen duten Polizia Kidegoetako eskala eta kategorietara sartu aurretik egin beharreko praktika aldiak programatzea eta Euskal Herriko Poliziaren Kidegoetako eskala eta kategorietara sartu aurretik egin beharreko gaikuntza ikastaroetan eta praktika aldietan parte hartzen dutenen jarraipena egitea, hautaketa ondorioetarako.

e) Toki-Administrazioaren menpeko Polizia Kidegoetako eskala eta kategorietara sartzeko aukeraketa-bideak burutzea, hala dagokionean.

f) Udalbatzekin, beren Polizia Kidegoetako funtzionarien aukeraketa inguruko gaietan, lankidetzan aritzea eta laguntza ematea eta haiek deitutako aukeraketa-bideetan, epaimahaiei beren eginkizunak era egokian egiteratzeko beharrezko izan daitezkeen lankidetzak materiala eta laguntza teknikoak ematea.

#### 8. atala.- Administrazio eta Gai Orokorretarako Alorra.

Administrazio eta Gai Orokorretarako Alorrari dagozkio:

a) Langileen ohizko kudeaketa eta administrazioa, eta bereziki:

- bateragarritasun espedienteak ebaztea.

del de procedencia conforme con lo que se determine reglamentariamente en desarrollo de lo previsto en el art. 73.3 de la Ley 4/1992.

e) Diseñar, organizar y desarrollar, en su caso, los cursos y programas destinados a la consecución de la adecuada capacitación lingüística de los funcionarios de la Ertzaintza.

f) Proponer fórmulas de colaboración con entidades públicas o privadas dedicadas a tareas de protección y ayuda al ciudadano en la Comunidad Autónoma, promoviendo y desarrollando aquellas actividades de carácter formativo o de divulgación que puedan resultar adecuadas para el cumplimiento de los fines de la Academia.

g) Elaborar publicaciones periódicas de carácter formativo e informativo destinadas a los funcionarios de la Policía del País Vasco y organizar otras actividades complementarias dirigidas a su cualificación profesional.

#### Artículo 7.- La División de Selección.

Corresponde a la División de Selección:

a) Elaborar y proponer al Director las bases de los procesos selectivos para el ingreso en las escalas y categorías de la Ertzaintza.

b) Ejercer cuantas funciones correspondan al desarrollo de los procesos selectivos para el ingreso en las escalas y categorías de la Ertzaintza.

c) Elaborar las reglas básicas para el ingreso en las distintas escalas y categorías de los cuerpos de policía dependientes de la Administración Local, y en particular, los programas, contenido y estructura de los procesos selectivos que hubieran de resultar comunes y de obligada aplicación.

d) Programar los períodos de prácticas previos al ingreso en las escalas y categorías de los cuerpos que integran la Policía del País Vasco y realizar el seguimiento, a efectos de selección, de los participantes en los cursos de formación y períodos de prácticas previos al ingreso en las escalas y categorías de los cuerpos de Policía del País Vasco.

e) Ejecutar, cuando le corresponda, los procesos selectivos para el ingreso en las escalas y categorías de los Cuerpos de Policía dependientes de la Administración Local.

f) Colaborar y prestar asistencia técnica a los municipios en materias relativas a la selección de los funcionarios pertenecientes a sus cuerpos de policía y facilitar a los tribunales, en los procesos selectivos convocados por aquéllas, la colaboración material y el auxilio técnico que les sean precisos para el adecuado ejercicio de sus funciones.

#### Artículo 8.- La División de Administración y Asuntos Generales.

Corresponde a la División de Administración y Asuntos Generales:

a) La gestión ordinaria y administración de personal y en particular:

- resolver los expedientes de compatibilidad

– lizentzia eta baimenak ematea.  
 – disziplinazko espedienteak ireki eta lege-urratze arinegatiko eta larriegatiko zigorrak jartzea.

b) Erakunde Autonomiadunaren aurrekontuen aurregitasmoa prestatzea eta bere egiterapenaren jarraipena egitea.

c) Ikastegiaren ondare eta kontratazio espedienteen ekonomi-kudeaketa eta izapideketa.

d) Ikastegiko lege aholkularitza.

e) Ikastegiko erregistro orokorra.

f) Ikastegiko egoitzaren zainketa eta ondasun higikor eta higiezinaren administrazio eta zainketa.

9. atala.– Ihardute-sailen koordinaketa.

Ikastegiko ihardute-sail guztiek gainontzekoekin elkarlanean ihardungo dute eginkizunak betetzen, Erakunde Autonomoaren helburuak lortzeko beharrezko izan daitezen elkarlan eta laguntza emanaz.

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Idazkaritza Nagusiko eta aurreko idazatietan araupe-tutako Alorretako titularren lanpostuak poliziaren laguntzarako lan-itunepeko langileen eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko langileen arteko aukerako izendapenez beteko dira, dagokion lanpostuen zerrendan jasoko den bideari jarraituz.

#### INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabe gelditzen da Euskadiko Ertzaingoaren Ikastegiaren organu eta funtzioen oinarritzko egitura onartzen duen maiatzaren 14eko 311/1991 Dekretua.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia Herrizaingo Sailari atxikita geldituko da, horren egitura organikoa ezartzen duen Dekretuan oharmandakoaren arabera.

*Bigarrena.*– Herrizaingo Sailburuak du Dekretu honetan xedatutakoa garatu eta ezartzeko beharrezko izan daitezen xedapenak emateko ahalmena.

*Hirugarrena.*– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 1993ko uztailak 27.

Lehendakaria,  
 JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo Sailburua,  
 JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

– conceder licencias y permisos  
 – incoar expedientes disciplinarios e imponer sanciones por faltas leves y graves

b) La preparación del anteproyecto del presupuesto del Organismo Autónomo y el seguimiento de su ejecución.

c) La gestión económica y la tramitación de los expedientes de patrimonio y contratación de la Academia.

d) La asesoría jurídica de la Academia.

e) El registro general de la Academia.

f) Atención y cuidado de las dependencias de la Academia y la administración y conservación de bienes muebles e inmuebles.

*Artículo 9.*– Coordinación de los órganos.

Todos los órganos de la Academia actuarán en coordinación con los demás en el desempeño de sus funciones, prestándose la colaboración y asistencia que sea necesaria para el cumplimiento de los fines del Organismo Autónomo.

#### DISPOSICION ADICIONAL

Los puestos de trabajo de los titulares de la Secretaría General y de las Divisiones reguladas en los artículos precedentes se proveerán mediante el sistema de libre designación de entre el personal laboral auxiliar de policía y el propio de la Academia de Policía del País Vasco, conforme se prevea en la correspondiente relación de puestos de trabajo.

#### DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 311/1991, de 14 de mayo, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional básica de la Academia de Policía de Euskadi.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– La Academia de Policía del País Vasco quedará adscrita al Departamento de Interior en los términos que se establezcan en el Decreto de Estructura Orgánica de éste.

*Segunda.*– Se faculta al Consejero de Interior para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto.

*Tercera.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de julio de 1993.

El Lehendakari,  
 JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Interior,  
 JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.